

GOPEGUI

Se sitúa en la zona llana y céntrica del municipio de Cigoitia del que ostenta la capitalidad. La altitud media sobre el nivel del mar que alcanza su caserío es de 602 metros.

GOPEGI

Zigoitiako udalerriaren ordekaldean eta erdigunean aurkitzen da, bertako herriburu dela. Bertako etxe-taldearen batezbesteko altuera 602 m.koa da itsasmailatik.

Iglesia parroquial. Alzado Oeste: torre y detalle de canecillos.

Parrokia Mendebaldeko Altxaera: Dorrea eta harburutxoen zehaztasuna.

advocación se dedica a la Asunción de Nuestra Señora. Es de planta rectangular. Tanto en sus alzados Norte como Sur conserva restos románicos delatando el estilo de su primitiva construcción. Así mismo, su pila bautismal es románica. La torre, a los pies del templo, es de planta rectangular de configuración vulgar.

kainia dago. Laukizuzena da oinplanoz. Hala Iparraldeko nola Hegoaldeko altxaeretan arrasto erromanikoak dauzka, bere lehen bateko eraikuntz estiloa salatzen. Dorrea eliz oinetan oinplano laukizuzenekoa da egitura herritarrekoa.



Torre Goikolea alzado levante.

Goikolea dorrea ekialdeko altxaera.

Delante del templo parroquial se halla el caserío catalogado con el n.° 1, formado por tres cuerpos de distinta altura, correspondiendo el más elevado a la denominada "torre Goicoechea" o "torre Goikolea". Micaela Portilla dice de ella: "Es un torreón tardío, recuerdo de las torres solariegas medievales. Sin misión defensiva como otras muestras alavesas, rememoran las torres de los linajes antiguos de la tierra, tratando de dar lustre y prestancia a las casas solariegas en que se edificaban".

Parroki elizaren aurrean aurkitzen da zk. 1 arekin katalogatutako baserria. Altuera desberdineko hiru gorputzez eratua dago, hiruetan altuena "Goikoetxea dorre" edo "Goikolea dorre" izenekoari dagokiolarik. Mikaela Portilla-ren esatez: "Torreoi berantar bat da, erdiaroko dorre oinetxetarren oroigarri. Ez du defentsa-xederik; Arabako beste dorre batzuk bezala, lurraldeko leinu zaharren dorreak gogorazten dituzte, jasotzen zireneko oinetxeei handiki-kutsua eta prestutasuna emateko asmoz".

Torre Goikolea alzado norte y oeste; escudo.

Goikolea dorrea. Ipar eta mendebaleko altxaerak; armarria.

Sigue: "Su planta, casi cuadrada, mide ocho metros y medio en su fachada Norte y Sur, y cerca de ocho en las del Este y Oeste; tiene una altura de casi doce metros y el grosor de los muros alcanza 1,10 metros en la planta baja de la pared Norte y cerca de un metro en los pisos altos.

En la fachada Este se encuentra el escudo de la casa, medio partido y cortado con las nueve panelas de los Zárates en la partición primera el árbol con las cinco panelas puestos en sotuer, también de los Zárates, en la segunda y, en la tercera los lobos andantes con bordura de ocho sotúeres, armas de los Eguiluz, Ostenta yelmo y lambrequines al estilo de las piezas armeras del siglo XVII.

Eta jarraitzen du: "Bere oinplanoa karratua da ia; zortzi metro t'erdi ditu bere Ipar-Hegoetako fatxadetan, eta zortzi inguru Eki-Mendebalekoetan. Hamabi metro ditu ia altueran eta 1,10 m. haren hormen lodierak Ipar-hormako behe-oinean eta metrobete inguru goiko pisuetan.

Ekialdeko fatxadan aurkitzen da etxearen armarria, erditik partitua eta Zaratetarren bederatzi panelez ebakia; lehenengo partiketan arbola, itxoroskitan jarritako bost panelekin, Zaratetarrena hori ere; bigarrenean eta hirugarrenean otso ibiltariak, zortzi itxoroskizko ertzarekin, Egiluztarren armark. Gerra-kaskoa eta goardamailetakoa ageri ditu, XVIII. mendeko arma-gauzak bezala.

Portal del caserío anexo a la torre.
Dos detalles de la planta alta de la torre.
Caserío anexo a la torre.

Dorreari atxekiriko baserriaren ataurrea.
Dorrearen oin garaiko bi xehetasun.
Dorreari atxekiriko baserria.

El torreón presenta en su interior cuatro plantas. La baja debió destinarse a cuadras y dependencias accesorias. En la primera se encuentra la sala noble del edificio abierta hacia la fachada Norte y Este por huecos interiores rematados en arcos escarzanos de buen dovelaje de sillería.

La segunda planta comprende también una sala amplia, lo mismo que la tercera, presenta ésta hilera de huecos cuadrados que recuerdan en su posición las defensas de las torres medievales, saeteras o troneras, abiertas cerca de sus remates.

Dorreak lau oinplano dauzka barnean. Behekoa badirudi ikuilu eta barrundegi akzesorioetarako erabili zela. Lehenengoan eraikinaren sala noblea aurkitzen da, zeina bait da Ipar eta Ekialdeko fatxadetara irekitzen barne-baoetatik zehar; bao hauek harlanduzko dobeleria ona duten arku eskartzanoz errematatuak daude.

Bigarren oinplanoan ere sala handi bat dago, eta hirugarrenean ere bai. Hirugarren honek bao karratuzko ilara bat dauka beren egonlekuz erdiaroko dorreen defentsak gogorazten dituztenak. Hala nola gezileiho edo kainoizuloak, dorreertzetan irekitzen zirenak.

Magnífico ejemplar de caserío con infulas de casa solariega.

Baserriaren erakuskari zoragarria oinetxe aireekin.

Al Levante del templo parroquial se encuentra el caserío más interesante del lugar y uno de los más notables del Municipio y Comarca.

Se trata de un destacado volumen con un cuerpo principal del que sale en la parte posterior de su pared izquierda un ala.

Lo sugestivo de este caserío se refleja en su fachada principal que mira a mediodía. Es amplia, alegre, sólida, horadada copiosamente, poseyendo seis huecos con distribución simétrica respecto del eje vertical que pasa por el caballete de la cubierta.

Parroki elizaren Ekialdean dago auzoko baserririk interesgarriena eta udalerri osoan eta eskualdean aipagarrienetakoa dena.

Bolumen handiskoa duen gorputz nagusi bat da, zeinaren atzekaldeko ezker-hormatik hegal bat ateratzen bait da.

Baserri honek duen zera sugestiboena Hegoaldera begira dagoen fatxada nagusian ispilatzen da. Handia da berau, alaia eta sendoa, zulo ugarikoa; sei bao ditu teilatuko galdurretik igarotzen den ardatz bertikalari buruz simetriaz banaturik daudenak.



Caserío nº 13. Detalles de dos de sus rejas, croquis y portal.

13 zk. baserria. Bere burdinsareetako biren xehetasunak, krokisa eta ataurrea.

Los muros laterales sobresalen un metro -fraileros- con el propósito de apear en los extremos el acusado voladizo del alero de la cubierta y de resguardar de las adversas condiciones climáticas provinientes del N., N-W y N-E a la fachada.

Alboko hormak metrobete ateratzen dira -fraile-hormak- estalki-hegalaren hegalkin irtenak eskoratzeko asmotan eta fatxada, N., N-W eta N--Etik etortzen diren kondizio klimatiko txarretatik babestu-asmoz.

Dos impostas recorren la fachada señalando la separación de plantas.

Bi inpostak korritzen dute fatxada oinplanoen banakera seinalatuz.

Aislado caserío en la parte alta del pueblo.

Baserri isolatua herriko goiko partean.

En el caserío n.º 10, a nivel más bajo que los anteriores, nos encontramos con un caso frecuente en esta zona cual es la delimitación de la propiedad particular mediante muros y muretes que varian de altura, siendo en el caso de este caserío de dos metros y medio a tres, lo que hace que el caserío se halle en cierto aislamiento o recluimiento del resto. Dentro del recinto se halla el edificio-vivienda, de bella factura y notable volumen cuya cubierta desagua a los cuatro alzados, así como pequeños cobertizos o construcciones auxiliares y el consabido huerto para poder abastecerse de varios productos hortícolas consumibles diariamente.

La entrada al recinto se efectúa a través de una gran puerta de madera abierta en el muro Poniente, protegida de tejadillo a dos aguas y en cuyo dintel figura la inscripción de 188?, que presumiblemente sea la fecha de construcción del edificio-vivienda.

Zk. 10eko baserrian, mailaz aurrekoak baino beherago bait dago, eskualde honetan sarri ematen den zerbait aurkitzen dugu, nola den jabetza partikularraren mugak altuera desberdineko hormaz eta karelez egitea; baserri honen kasukoan bi metroterditik hirura bitartekoa da, honek ematen bait dio baserriari nolabait ere itxita edo besteetatik isolatua egotea. Itxiturabarruan bizitz-eraikina dago, egitura ederrekoa eta buelo handikoa, bere estalkiak lau altxaeretara ur-isurkia duela; estalpe txiki edo eraikuntza laguntzaileak ere baditu, eta betiko baratza ere bai, egunero behar diren baratz produktuak eskura izateko.

Barrura zurezko ate handi batean barna sartzen da. Mendebaleko horman dago, bi isurkiko teilatuska batez babestua eta atalburuan 188?-ko inskripzioa duela; hori seguraski bizitz-eraikina jaso zeneko urtegarrena da.



Proporcionadas dimensiones muestra el caserío n.º 8.
Croquis distributivo de la unidad de explotación agropecuaria.

Neurri proportzionatuak erakusten ditu 8 zk. baserriak.
Nekazal ustiategiaren banaketa-krokisa.

El acceso a la vivienda se halla descentrado. Interiormente se halla algo reformado, principalmente en la zona de cuadras que se ha acondicionado como salón.

En el barrio de Abajo, de configuración longitudinal, son varios los caseríos que reciben o se les conoce con nombre propio del término donde se levantan.

Los caseríos catalogados con los números 4 y 8, al Norte del lugar, levantados en la franja delimitada por el río Zalla y la carretera, toman el nombre de caseríos de Urisolo. Ambas unidades agropecuarias son semejantes en cuento a tipología de edificios, tanto en el principal c vivienda como en los auxiliares: cuadras, estercolero, cabaña, huerto... La funcionalidad y ubicación de cada edificio con sus dependencias se reflejan en el croquis que se adjunta correspondiente al caserío n.º 8.

Bizitzarako sarrera deszentratua aurkitzen da. Barrutik zerbait eraldatua dago, batipat aretogisa moldatu den ikuilu-alde izandakoan.

Beheko auzoa luzanga da egituraz; bertan bat baino gehiago dira baserriak, non jasota dauden mugapeharen izena izen propiotzat daukatenak.

Zk. 4 eta 8ekin katalogatutako baserriak auzoaren Iparraldean daude eta Zalla errekak eta kaminoak mugatutako zirrindan jasoak; Urisoloko baserriak esaten zaie. Bi nekazaritza eta abere-hazkuntzako unitateak antzekoak dira eraikin-tipologiari dagokionez, bai eraikin nagusi edo bizitzan eta bai eraikin laguntzaileetan, hala nola: ikuilu, simaurtegi, egilehor, baratza etab.etan. Eraikin bakoitzaren funtzionalitate eta kokaera, zein bere barrundegiekin, alboko krokisean adierazten da; zk. 8ko baserriari dagokiona da.

Edificaciones números 4, 5 y 15.

4, 5 eta 15 zk. eraikinak

El edificio más alto corresponde a la vivienda, con la cubierta a cuatro aguas. El caserío n.º 8 data del año 1931 y se levantó sobre otro más viejo. El caserío n.º 4, aunque de apariencia más moderna que el anterior, es algo más viejo pero dentro de este siglo.

A la altura de la cabaña del caserío n.º 8 se halla un sencillo edificio, el n.º 5, que albergó a una fragua.

El caserío n.º 15, frente al ramal que se dirige a Cestafe y Acosta, presenta una bien cuidada fachada principal con distribución simétrica de huecos. Son varias las construcciones auxiliares que se le anexionan en sus laterales. La cabaña y era se hallan en la parte posterior y anexas al edificio principal. A destacar el gran faldón, que cobija en parte a la vivienda, pero principalmente a la cuadra, dada su enorme superficie.

Eraikin altuena bizitzarena da, teilatua lau isurkikoa duela. Zk.8ko baserria 1931eko urtekoa da eta aurreragoko beste zaharrago baten lekuan jaso zen. Zk. 4ko baserria, itxuraz aurrekoa baino modernoago dirudien arren, hura baino zahartxoagoa da, baina mende honen barrukoa beti ere.

Zk. 8ko baserriaren egilehorraren maila berean eraikin bakun bat dago, zk.5ekoa, behiala suaroztegi bat izan zena.

Zk. 15eko baserriak, Zestafe eta Akostara doan bide-adarraren parean dagoenak, ederki zaindutako fatxada nagusi bat dauka, baoak simetriaz banaturik dituela. Hainbat dira eraikin nagusiari atxikitzen zaizkion albo-eraikuntzak. Egilehorra eta larraina atzekaldean aurkitzen dira eta eraikin nagusiari erantsiak. Aipagarria teilatuhegal handia da, zeinak babesten bait du zati batez bizitza, baina batez ere ikuilua bere hedadura handiarekin.

Bella estampa de caserío a cuatro aguas muestra el n.º 16.

16 zk.ak baserri-estanpa ederra erakusten du isurkiak lau uretara dituela.

Caminando hacia el Sur y también levantado en el terreno existente entre la carretera y el Zalla, se halla el caserío n.º 16. La configuración de este caserío es muy similar a los de Urisolo, aunque en este caso el cuerpo principal o vivienda es más noble y de mayor voluminosidad. La distribución de su interior es semejante al resto de las viviendas de esta zona salvo parte de su planta baja que se destina a establecimientos públicos cuales son: bar y agencia de una entidad de ahorro.

Este caserío junto con los que se sitúan a la misma altura pero al otro lado de la carretera forman el grupo de caseríos situados en el centro de la localidad.

Hegoaldera bideginez eta hau ere kaminoaren eta Zalla errekaren arteko terrenoan jasoa zk. 16ko baserria dago. Honen egitura ere Urisoloko baserrien oso antzekoa da, nahiz eta kasu honetan gorputz nagusia edo bizitza nobleago eta buelo handiagoko izan. Bere barruaren banakera eskualde honetako beste bizitzen antzekoa da, bere behe-oineko zati bat, establezimendu publikotarako jarria dagoena izan ezik: nola diren taberna eta aurrezki-etxe baten agentzia.

Baserri honek eta maila berean baina kaminoaren bestaldetik aurkitzen direnek, herriskaren erdiko baserri-multzoa eratzen dute.

Dos épocas distintas en el caserío n.º 18.
Detalle del entramado del alzado Levante.

Bi aro desberdin 18 zk. baserrian.
Sortaldeko altxaerako bilbaduraren xehetasuna.

El caserío n.º 18, junto a la carretera, ha visto disminuir su planta en la parte correspondiente al linde con aquella por la ampliación de anchura dada a la misma con el fín de ampliar la visibilidad de los conductores que por ella circulen.

En distintos puntos del edificio se aprecian elementos arquitectónicos propios de una arquitectura formal lo que hacen de aquél un edificio con arrogancia de casa noble.

El dintel del acceso que da lugar al portal encachado con bellos dibujos y figuras geométricas se halla apeado en dos ménsulas en "eses" que acortan brevemente su luz. El acceso se halla en el cuerpo que posee pequeño retranqueo respecto del resto del edificio y salvaguardado por el voladizo del piso con varios de sus canes apeados en jabalcones.

Zk. 18ko baserriari, kamino-bazterrean dagoenari, oinplanoa murriztu diote kaminoaren aldetik, automobilzaleei bista hobea ematearren, bidea zabaldu dutenean.

Eraikinaren hainbat puntutan nabari dira arkitektura formalari dagozkion zenbait arkitektur elementu; honek handiki-etxe baten harrotasuna ematen dio eraikinari.

Ataurrera sarrera ematen duen ateko dintela, dibujo politez eta figura geometrikoz enkatxaturik, "S" itxurako bi mentsuletan eskoratzen da; baina horiek murriztu egiten diote piska bat argia. Sarrera gorputzean aurkitzen da, atzera-emana dago eraikinaren gainerako zatiarekiko eta pisuko hegalkinak babesturik ere bai, zeinak bait ditu bere harburuetako batzuk jabaloietan eskoraturik.

Caserío nº 18. Ventana con escudete.
Puerta.
Tripleta: Fuente-abrevadero-lavadero.
Flanco abierto del lavadero.

18 zk. baserria. Lehioa armarriarekin.
Atea.
Hirukoa: Iturria-edaska-ikuztegia.
Ikuztegiko saihets irekia.

La sillería que poseen esquinales y recerco de huecos está bien trabajada siendo de piedra arenisca de color tostado. Dos de las ventanas llevan alféizares salientes; el dintel de una de las ventanas del alzado Norte lleva grabado pequeño escudete.

La fuente, abrevadero y lavadero siguen la tónica de la zona: Larrinoa, Múrua, Ondátegui... Se construyó en el año 1885 y entra dentro de las que se conciben como fuentes de tipo arquitectónico. Es paralelepipeda y coronada por frontón triangular con pila circular y base tronco cónica. El lavadero abierto parcialmente en el alzado en que se halla su acceso.

El caserío nº 21 se halla cerrado. El conjunto de edificios que lo conforman dan a su planta forma de "L". Su fachada se orienta al mediodía con el acceso descentrado y próximo al extremo Poniente cuyo muro lateral sobresale a modo de frailero, con el fín de servir de apeo a la cubierta así como de resguardar de los vientos provenientes del Noroeste, al acceso.

Kantoietan eta baoen azpaduretan ikusten den harlandua ederki landua dago, areharrizkoa da, erre-kolorekoa. Leihoetako bik barlasai irtenak dauzkate; Iparraldeko altxaeran dagoen leiho bateko dintelean armarritxo bat dago grabatuta.

Iturria, edanaska eta lisiba-putzua eskualdeko Larriona, Murua, Ondategi etab.etakoen antzekoak dira. 1885ean jasoa da eta arkitektur tipoko iturriak bezala bururatzen direnen sailean sartzen da. Paralelepipedoa da eta triangeluzko frontoi batez koroatua uraska biribilarekin eta enbor konikozko oinarriarekin. Lisibategia irekita dago partzialki sarrera duen altxaeran.

Zk. 21eko baserria itxita dago. Hura eratzen duen eraikin-multzoak "L"-itxura ematen dio haren oinplanoari. Fatxada Hegoaldera begira dago, atea deszentraturik duela eta Mendebaleko ertzetik hurbil, zeinaren albo-horma fraile-horma bezala ateratzen bait da, teilatuari eskorabide emateaarren, eta Ipar-Mendebaletako aizeetatik sarrera babestu-asmoz.

Caserío Nº 21.
Caserío Nº 20. Alzado poniente.
Caserío Nº 20. Alzado sur.

21 zk. baserria.
20 zk. baserria. Sartaldeko altxaera.
20 zk. baserria. Hegoaldeko altxaera.

La cabaña de longitud superior al término medio de las que se prodigan en la comarca se desarrolla en la parte posterior al edificio principal y perpendicularmente a éste.

La era y el amplio huerto se desarrollan delante de los edificios y delimitado por murete de mampuestos recogidos en seco que delimitan a su vez, una de las orillas del camino que por allí circula.

El caserío nº 20, al Levante del anterior, es utilizado como segunda vivienda y como tal se halla ambientado. Lo forman dos cuerpos de distinta altura, ocupando la vivienda el más elevado (espigado).

Posee dos accesos: el correspondiente a las cuadras que se sitúa en el alzado Poniente el de la vivienda, al Sur. En esta última orientación el cerramiento del piso es a base de entramado de madera visto con elementos horizontales, verticales y alguno de arriostramiento cuyos intersticios se rellenan de hileras de ladrillos separados por argamasa del mismo espesor que aquellos.

Egilehorra, han inguruetan ikusi ohi direnak baino luzeagoa da, eraikin nagusiaren atzekaldean aurkitzen da eta horri perpendikularka.

Larraina eta baratz handia eraikinen aurrean daude, eta harlangaitz lehorrez egindako karelez mugaturik, zeinak gainera handik igarotzen den bidearen ertz bat ere mugatzen bait du.

Zk. 20ko baserria, aurrekotik Ekialdera dagoena, bigarren bizitza bezala erabiltzen da eta holakotzat antolatua dago. Altuera desberdineko bi gorputzek osatzen dute, bizitza bietan altuenak hartzen duela.

Bi sarrera dauzka: ikuilurakoa, Mendebaleko altxaeran dagoena, eta bizitzarakoa Hegoaldean. Hegoaldean pisuaren itxiera ageriko egurbilbaduraz egina dago elementuak horizontalak, bertikalak eta baten bat txarrantxamenduzkoa dituela, zeintzuen zirrikituak adreilu-ilaraz eta kareorez betetzen bait dira, adreiluen tartean jartzen den kareorea haien lodiera berdinekoa delarik.

Caserío «El Seto». Alzado, portal y croquis de su P. B.

«El Seto» baserria. Altxaera, ataurrea eta krokisa.

Al Levante de este grupo central de caseríos se halla el denominado o conocido como caserío "El Seto", que corresponde en nuestra catalogación al n.º 22. Presenta la clásica fachada propia de los edificios construidos a finales del siglo pasado con recercos de huecos en sillería, y el resto de mampostería con el típico revoco de cal repetido en la inmensa mayoría de los edificios de la provincia, es decir, dejando visto las partes más salientes o centrales de los mampuestos.

El horno de pan se halla en dependencia anexa a su lateral izquierdo. En su lateral derecho se desarrolla las cuadras, pajar, granero.

Baserri-multzo zentral honen Ekialdera "El Seto" izenez ezagutzen den baserria dago, gure katalogazioan zk. 22ari dagokiona. Fatxada klasikoa du, joan den mende-bukaeran jasotako eraikinek ohi duten bezalakoa; baoetako azpadurak harlanduzkoak eta gainerakoa harlangaitzezkoa, karezko entokadura tipikoarekin, probintziako eraikin gehienetan ikusten den bezala, hau da, harlangaitzaren zatirik irteneenak edo zentralenak agerian utziz.

Ogi-labea ezkerreko saihets-hormari zuzenean atxekia dago. Eskuiko saihetsean ikuilua, lastategia eta aletegia aurkitzen dira.

Caserío n.° 23.
Caserío n.° 24. Bellamente circundado por su rain.

23 zk. baserria.
24 zk. baserria bere larrainez dotore inguratua.

El caserío n.° 23, situado entre los dos últimos citados, se le conoce como caserío Uriondo. En la actualidad se cobijan dos viviendas al acondicionarse la cabaña y cuadras para albergar a una vivienda.

Ambas viviendas disponen su cubierta a dos aguas con el caballete paralelo a la fachada principal.

Delante de ambas viviendas y separadas de estas por estrecho pasillo de servidumbre se desarrolla la finca propiedad de la casa, parte de la cual es ocupada por el huerto.

El horno de pan se halla externo al edificio, en pequeña construcción habilitada para ese menester, próximo al lateral Oeste de la primitiva vivienda.

Siguiendo hacia el Sur de la localidad nos encontramos con el caserío catalogado con el n.° 24, conformado por varios edificios complementarios en torno al edificio principal que unido a la existencia de árboles frutales próximos a aquel lo enmascaran, sobre todo, en la época exuberante de estos últimos.

Zk. 23ko baserria, lehen aipatutako bien artean aurkitzen dena Uriondo bezala ezagutzen da. Gaur egun bi bizitza dauzka, egilehorra eta ikuilua bizitzatarako moldatu zirenetik.

Bi bizitzek daukate teilatua bi isurkirekin, galdurra fatxada nagusiari paralelo dutela.

Bi bizitzen aurrean eta hauetatik zortasunezko pasabide estu batez banandurik etxearen jabetzako finka dago, horren zati bat baratzak hartzen duela.

Ogi-labea eraikinetik kanpora dago, horretarako moldaturik dagoen eraikin koskor batean, jatorrizko bizitzaren Mendebal-altxaeratik gertu.

Herriaren Hegoaldera joanez zk. 24arekin katalogatutako baserriarekin aurkitzen gara, eraikin nagusiaren inguruan dauden hainbat eraikin osagarriz eratua bait dago. Eta nola fruita-arbolek hurbiletik inguratzen duten, dena estaltzen dute arbolen hostoaldikoan batez ere.

Caserío nº 24. Detalles de curvado jabalcón, ventanal y pozo.

24 zk. baserria. Jabaloi kurbatuko xehetasunak, lehiatea eta potzua.

Uno de los faldones de la cubierta es de mayor superficie que el otro. Como ya es típico en los edificios de la inmensa mayoría de los pueblos visitados, las ventanas de la planta baja se encuentran, la mayoría de ellas, protegidas por rejas más o menos artísticas. A reseñar que en el dintel del recerco de uno de ellos lleve moldura en rebaje en cuya parte central se halla pequeño arco conopial. Podemos presentir que las piezas que componen dicho hueco proceden de alguna otra construcción arruinada, de época gotizante ya que dicho elemento no es acorde con el resto del edificio. Así mismo diremos que delante de la fachada y protegido por sencillo tejado se encuentra el pozo cuya circunferencia es de sillería labrada en su mayor parte.

El horno de pan se encuentra en pequeña construcción, frente a la fachada.

Siguiendo nuestro itinerario, en dirección citada más arriba, arribamos al último grupo de caseríos que conforman esta localidad de Gopegui.

Teilatuaren hegal bat bestea baino handiagoa da hedaduraz. Ikusitako herririk gehienetako eraikinetan tipikoa den bezala, behe-oineko leihoak, gehienak, burdin-sare gutxi edo gehiago artistikoz babesturik aurkitzen dira. Aipatzekoa da, horietako azpaduraren dintelean moldura errebajatua daukala, zeinaren erdialdean arku konopial txiki bat aurkitzen den. Seguru esan genezake, bao hori osatzen duten piezak beste eraikuntza aurrituren batetik ekarriak direla, eta eraikuntza hori gotiko-kutsuko garaikoa zela, elementu hori ez bait dago ados eraikinaren gainerako elementuekin. Berebat esango dugu, fatxadaren aurrean eta teilatu xumez babesturik ur-putzua aurkitzen dela, zeinaren inguru osoa harlanduzkoa bait da gehienbat.

Ogi-labea eraikin txiki batean aurkitzen da fatxada-aurrean.

Gorago aipatu dugun direkzioan bideari jarraituz, Gopegi osatzen duen azkeneko baserrimultzora iristen gara.



Grupo caserío n.º 25.
Vivienda al Oeste y vivienda al Este en retranqueo.

25 zk. etxaltea.
Etxebizitza Mendebaldean eta etxebizitza Ekialdean atzeratua.

El primer caserío que nos topamos es el catalogado con el n.º 25 y en el que se desarrollan dos viviendas, una de las cuales se halla en retranqueo con respecto de la otra. La tipología de ambas es muy similar, con cubierta a cuatro aguas, disponiendo de planta baja, primera y camarote, con sus fábricas de mampostería con fuerte carga de cal en el rejuntado de los mampuestos y, disposición simétrica de sus huecos.

Delante de la vivienda retranqueada se desarrolla pequeño huerto delimitado por ambas viviendas y muro de mampostería coronado por tapa de cemento.

La vivienda más al Poniente lleva anexa en su parte posterior el edificio destinado a cuadras, de menor altura que aquel, así como la cabaña de dos plantas.

Lehenengo aurkitzen dugun baserria zk. 25arekin katalogatutakoa eta bi bizitza dituena da; bata atzera-emana dago bestearekin konparatuz. Tipologiaz oso antzekoak dira, biek dituztelarik: teilatua lau isurkikoa; behe-oina, lehenengoa eta ganbara; fabrikak harlangaitzezkoak, harlangaitzen junturetan kare-mordoa dutela; eta baoen banakera simetrikoa.

Bizitza atzera-emanaren aurrean baratza koskor bat aurkitzen da muga dituela bi bizitzak eta harlangaitzezko horma, zementuzko estalkiz koroatua.

Mendebal-alderagoko bizitzak ikuilutarako xedatua dagoen eraikin bat dauka atzekaldean, ez hura bezain altua, eta bi oinplanoko egilehor bat ere bai.

Albina y resguardada fachada observa la casa n.° 31.

31 zk. etxeak fatxada zuri eta babestua erakusten du.

A continuación encontramos el caserío n.° 31 de fachada extendida, pero poco elevada, orientada al Levante. En dintel del hueco del acceso lleva grabado cruz de dos brazos y base triangular, y se apoya en dos ménsulas acortando la luz del acceso. Atravesando el umbral de la puerta se encuentra el portal de configuración alargada y dividido en dos zonas. De la segunda de éstas, es decir, de la más profunda, a mano derecha, se desarrollan las escaleras realizadas de dos tramos en escuadra.

El horno de pan se sitúa dentro del edificio, en una dependencia habilitada para él. La cuadra se sitúa en la zona Norte del edificio. La cabaña ha sido derruida en parte y convertida el resto en gallinero. La era que se situaba al Sur, ha sido acondicionada como huerta.

El edificio catalogado con el n.° 32, de moderna construcción, pertenece al caserío anterior y cobija al ganado vacuno y porcino, sirviendo, además, como pajar.

En el cruce del ramal que parte hacia Eribe se halla sencillo edificio de dos plantas conocido como la fragua por haber sido utilizado como tal.

Segidan zk. 31ko baserria aurkitzen dugu, fatxadaz zabala, bajua eta Ekialdera begirakoa. Sarrerako atalburuak gurutze bat dauka grabaturik, bi beso eta triangeluzko oinarria dituena, eta bi mentsulatan irozotzen da sarrerako argia gutxituz. Atalasetik barna igaroz, ataurrea aurkitzen da, luzanga eta bi zatitan banatua dagoena. Hauetako bigarren zatitik, hau da, barruenekotik eskuitara eskailerak aurkitzen dira eskuairan dauden bi atalez osatuak.

Ogi-labea eraikinaren barruan aurkitzen da, hartarako prestaturiko barrundegi batean. Ikuilua eraikinaren Iparraldean aurkitzen da. Egilehorra triskatua izan da zati batean eta gainerakoa oilotegi bihurtu da. Larraina, Hegoaldean aurkitzen zena, baratzatarako moldatua izan da.

Zk. 32arekin katalogatutako eraikina eraikiera modernokoa da, aurreko baserriarena da eta behiak eta txerriak barnetzen ditu; gainera lastategi ere bada.

Eribera doan bide-adarraren gurutzagunean, bi oinplanoko eraikin bakun bat aurkitzen da, forjatarako erabilia izan zelako, forja izenez ezagutzen dena.

En acusado estado negligente se encuentra el caserío n.º 30. Detalle de su bien trabajado acceso con escudete en el dintel.

30 zk. baserria egoera abandonatu nabarmenean aurkitzen da. Ondo landutako bere sarreraren xehetasuna dintelean armarritxoa duela.

El caserío n.º 30, dando la espalda al ramal citado más arriba, se halla deshabitado desde hace más de 40 años, ofreciendo pésimo aspecto. A reseñar la buena labra del recerco de su acceso que lleva moldura rectilínea en rebaje y sobre todo el escudete de su dintel en el que se distinguen varias herramientas: martillo, tenazas, pala, clavo, así como una paloma y una cruz. A sus pies se halla corazón atravesado por flecha.

Nuestra exposición de los caseríos de este lugar finaliza con los edificios que se levantan frente al último grupo citado y al otro lado del río Zalla. Son de relativa moderna construcción, municipales y que albergaron a las viviendas del médico y veterinario, así como el edificio que alberga varias dependencias municipales.

Zk. 30eko baserria, gorago aipatu den bideadarrari atzea emanez, inor bizi ez dela dago joandeneko 40 urte eta gehiagoan; oso itxura txarra dauka. Aipatzekoa, bere sarrerako azpadurak duen labra-lan ederra, zeinak bait dauka moldura lerrozuzena higaturik, eta batez ere bere atalburuko armarritxoa, non hainbat erreminta nabari bait dira: mailua, tenazak, pala, iltzea eta usoa eta gurutze bat ere bai. Bere oinetan bihotza aurkitzen da geziz zulatua.

Herriska honetako gure esanbeharrak, aipatutako multzo horren parean eta Zalla errekaren bestaldean aurkitzen diren eraikinekin bukatzen dira. Eraikuntzaz moderno samarrak dira, munizipalak eta lehen batean medikuaren eta albaiteroaren bizitzak beren baitan izan zituztenak eta halaber hainbat barrundegi munizipal bere baitan izan zituen eraikina ere bai.

Casa Consistorial. Antigua fragua. Detalle de escudete.

Udaletxea. Aintzinako sutegia. Armarritxoaren xehetasuna.

El edificio catalogado con el n.º 26 corresponde a la Casa-Ayuntamiento, que fué construida en los primeros años de la década de los treinta de este siglo al ser trasladada la sede del ayuntamiento de Ondátegui a Gopegui.

El aspecto que ofrecía antes de la reforma entraba dentro del tipo de Casa-Ayuntamiento vascos con arcada de tres huecos en su planta baja y balcón corrido en su piso.

Antes de la reforma, en su planta baja se hallaba la cárcel y otras dependencias auxiliares, en el primer piso se hallaban las oficinas propias del ayuntamiento y en el segundo piso se encontraba la vivienda del secretario del Ayuntamiento.

Con la nueva reforma, las oficinas del Ayuntamiento se han trasladado a la planta baja, ocupando el soportal antiguo.

Volviendo, de nuevo, hacia el grupo de casas que ocupan el lugar central del barrio de Abajo y junto a la carretera por un lado, y el río Zalla por el otro, se halla la bolera o juego de bolos típico de la zona que ha sido recientemente acortado para dar mayor visibilidad a los vehículos que circulan por la carretera.

Zk. 26arekin katalogatutako eraikina Udaletxea da, mende honen hogeitamarreko hamarkadaren lehen urtearetan eraikia, udalerriaren egoitza Ondategitik Gopegira aldatua izan zenean.

Berritua izan aurretik zuen itxura euskal Udaletxeen tipokoa zen, behe-oinean hiru arkuko arkupea eta pisuan balkoi korritua zuela.

Berritualdia baino lehen, behe-oinean aurkitzen ziren kartzela eta beste barrundegi laguntzaile batzuk; pisuan aurkitzen ziren udaletxeari dagozkion bulegoak eta bigarren pisuan udalidazkariaren bizitza.

Erreforma berriarekin, beheko oinera eraman dira Udal-bulegoak, lehengo karrerape zaharrak hartuz.

Beheko auzoan, erdialdean aurkitzen den etxe-multzora itzuliz, eta alde batetik kaminoa eta bestetik Zalla erreka ondoan dituela, bolatokia aurkitzen da, eskualde hartan tipikoa dena, zeina izan bait da berriki laburtua kaminotik ibiltzen diren ibilgailuei bista zabaltzeko.

Desaparecido crucero cubierto con detalles del mismo.

Jadanik desagertutako gurutzea, xehetasunez estalia.

Para finalizar con la exposición de los edificios de este lugar de Gopegui diremos que a poca distancia del pueblo y en el ramal que nos lleva a Acosta y Cestafe se encontraba hasta hace unos años un bello humilladero, cubierto a cuatro aguas, con uno de sus lados, el Poniente, totalmente abierto y que en la actualidad se ha arruinado, conservándose en las dependencias municipales la columna y cruz del mismo, esperando a que de nuevo pueda ser colocado.

Como podemos ver en la documentación gráfica que se acompaña, la cruz es la que hace de pilar central, sirviendo de sostén a toda la cubierta. El crucero posee doble base rectangular, fuste esbelto, rematado por sencillo capitel sobre el que se asienta la cruz que representa a un lado un Cristo crucificado y en el otro a la Virgen con el Niño en brazos.

Gopegiko etxeen azalpena bukatzeko esango dugu, herritik bertan eta Akorta eta Zestafera garamatzan bide-adarrean humilladero eder bat aurkitzen zela orain urte gutxi arte, estalia, lau isurkikoa, alderdi bat, Mendebalekoa, osoro irekia zuena; gaur egun lurjota dago, bertako koloma eta gurutzea udaletxean aurkitzen dira, berriro lehengo lekuan jarria izango delako esperantzan.

Alboko dokumentazio grafikoan ikus daitekeenez, gurutzeak egiten du erdiko pilarearen lana, teilatu osoari eutsiz. Gurutzeak oinarri bikoitza du, laukizuzena, fuste segaila, kapitel xumez burutua; honen gainean kokatzen da gurutzea, zeinak bait dauzka alde batera Kristo gurutziltzatua eta bestaldera Amabirjina haurtxoa besoetan duela.